


WiZink eperako gordailuen kontratu aurreko informazioa

Oharra: dokumentu honetan nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da.

Likidezia-alerta

  Inbertitutako zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa, erreskate edo itzulketa aurreratutako komisio edo penalizazioen mende daude.

Berme-funtsa

WiZink Bank SAU Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtzari atxikita dago, urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuaren arabera. Diru-gordailuetarako, bermatutako gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugileko kreditu-erakunde bakoitzean.

Informazio hau xede komertzialarekin ematen du WiZink Bank SAU erakundeak (aurrerantzean, Erakundea), kontsumitzaileentzako finantza-zerbitzuak urrutitik komertzializatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legea eta Banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguen ematearen erantzukizunari buruzko Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra betez. Hartzailearentzat bereziki garrantzitsua den informazio nabarmendua dakar.

Bezeroak, kontratu-harremanaren edozein unetan, eskubidea izango du produktu honen kontratuaren eta kontratu aurreko informazioaren kopia bat eskatzeko.

Gordailuzainaren nortasuna eta harremanetarako xehetasunak

Entitatearen datuak: WiZink Bank, SAU
Helbidea: C/ Ulises 16-18, 28043 Madrid
Telefono zenbakia: 91 787 47 47
Helbide elektronikoa: contacto@wizink.es
www.wizink.es

Zerbitzuak ematean, Entitatea Espainiako Bankuaren baimenaren eta ikuskapenaren mende dago, eta erakunde horren erregistroetan inskribatuta dago 0229 zenbakiarekin.

Produktuaren ezaugarri nagusien deskribapena

- Gordailuaren zenbatekoa:
 - Bezero berrientzat, gutxienez 5.000 € eta gehienez 250.000 €.
 - Bezero zaharrentzat, gutxienez 5.000 € eta gehienez 1.000.000 €.
- **Epea: 12, 18, 25 edo 36 hilabete.** Adostutako epea igaro ondoren Bankuak ordaindutako printzipala itzuliko dizu, adostutako baldintzetako ordainsariaz gain.
- **Muga-egunean automatikoki berrituko da: muga-eguna iristean, gordailua berritu egingo da Bankuak ezarritako interes-tasaren arabera, eta beharrezko aurrerapenarekin jakinaraziko du. Epea eta zenbatekoa berberak izango dira, baita likidazioen aldizkakotasuna ere,** betiere aldeetako batek ez badu berritzea salatzen eta hura kitatzeko eskatzen.

ARRISKU-ADIERAZLEA

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du: 1 / 6 arrisku txikiena da, eta, 6 / 6, arrisku handiena.

- Interesen likidazioa: hiruhilekoan behin.
- Interes-tasa:
 - %2,034 ITN (12 hilabete)
 - %2,280 ITN (18 hilabete)
 - %2,084 ITN (25 hilabete)
 - %2,182 ITN (36 hilabete)
- **UTB:**
 - **%2,05 UTB (12 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,034 (%2,05 UTB) 12 hilabeterako aplikagarria. Adibide adierazgarria, bezeroak 30.000 €-ko gordailua 12 hilabeteko epean kontratatzen duela suposatuta, hiruhilekoan behineko interesen likidazioarekin; epearen amaieran bezeroak 610,20 €-ko (interesa gordina) / 494,26 €-ko (interesa garbia) ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 12 hilabete 365 egun direla, interes tasa hauekin: %2,034 ITN.
 - **%2,30 UTB (18 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,280 (%2,30 UTB) 18 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 18 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 1.025,06 euroko (interes gordinak) edo 830,30 euroko (interes garbiak) ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 18 hilabete 547 egun direla, interestasa hauekin: %2,280 ITN.
 - **%2,10 UTB (25 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,084 (%2,10 UTB) 25 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 25 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 1.303,50 euroko (interes gordinak) edo 1.055,83 euroko (interes garbiak) ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 25 hilabete 761 egun direla, interestasa hauekin: %2,084 ITN.
 - **%2,20 UTB (36 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,182 (%2,20 UTB) 36 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 36 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 1.963,80 euroko (interes gordinak) edo 1.590,68 euroko (interes garbiak) ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 36 hilabete 1.095 egun direla, interes-tasa hauekin: %2,182 ITN.
- **Gordailu hori kontratzeko aurrezki-kontu bat ireki beharko da www.wizink.es** webgunean; bertan ez dira aplikatzen administrazio- edo mantentze-gastu eta -komisioak.
- Titularrak: titular bat baino gehiago badaude, xedapena eta erantzukizuna solidarioak izango dira. Behin gordailua kontratatutakoan, gordailua kontratatu eta ondorengo hamabost (15) egunetan soilik gehitu ahal izango dira titularkideak. Gordailuaren titulartasunak aurrezki-kontuaren titulartasunarekin bat etorri behar du beti.
- **Aldez aurreko ezeztapena: ezeztapen osoa baimenduta dago. Aurrezki-kontua duten titularren barne transferentzien kasuan, edozein unetan. Kanpoko transferentzien kasuan, kontrataziotik hirurogei 60 egun igaro ondoren. Aldez aurreko ezeztapena kasuan, gordailuaren zenbateko nagusia bakarrik ordainduko da, eta, zigor gisa, Bankuak deskontatu egingo ditu gordailuaren ondorioz ordura arte kobratutako interes guztiak.** Horretarako, titularrak, behin betiko baimena emango dio Bankuari, bere gordailuarekin lotutako aurrezki-kontuan zorduntzeko, gordailua ezeztatu arte ordaindutako interesak edo interesengatik gordailuaren nagusiarekin ordaindutako zenbatekoa konpentsatzeko. Titularrari jakinarazi zaionez, kitapen aurreratuen kasuan, zerga-ondorioetarako dagozkion errendimenduak egotzi eta atxikipenak jasanaraziko zaizkiola.

Aurrezki-kontua lotuta dago eperako gordailuarekin; beraz, hura kontratatutako gordailuaren iraupena amaitu aurretik kitatu bada, automatikoki kitatuko da. Kasu horretan, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da; hau da, soilik aurretik adierazitako baldintzetan ordaindutako zenbateko nagusia ordainduko da. Gordailua kitatzeak ez dakar aurrezki-kontua kitatzea, eta Kontratu honetan aurreikusitakoarekin bat arautuko da kontu hori. Gordailua eteteko eta zenbatekoa itzultzeko, indarreko legeriak une bakoitzean adierazten dituen baldintzak eskatuko dira.

- Pertsona fisikoentzako, egoiliarrentzako eta adinez nagusientzako eskaintza; www.wizink.es **webgunean kontrata daiteke.**

Informazio gehigarria finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzen diren kasuetarako.

Atzera egiteko eskubidea erabiltzea.

Titularrak kontratuetan atzera egin ahalko du horiek sinatu eta hurrengo hamalau (149 eguneko epean. Xede horietarako, sinadura-datatzat jotzen da titularrak edo titularrek kontratua(k) eta eragiketa(k) sinatu edo formalizatzen ditu(zt)en eguna. Atzera egiteko eskubidea, erakundeari jakinarazitako helbide elektronikotik atencionalcliente@wizink.es helbidera bidalitako mezu elektronikoz gauzatu ahal izango da. Data jarrita duen eta titular guztiek sinatu duten dokumentua erantsi beharko da, honako hauek adierazita: izena(k), abizena(k), IFZ eta aurrezki kontratuaren/kontratuen edo produktuaren/produktuen erreferentzia. Transferitu beharreko saldorik egonez gero, xede-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria erantsiko da. Titularrak uko egin ondoren, Bankuak egoera berrezarriko du kontratua sinatu izan ez balitz bezala. Beraz, Titularrari itzuliko dizkio Titularrarengandik jaso ahal izan dituen diru-kopuruak, eta gordailuari lotutako kontuan ordainduko zaizkio.

Legeria eta jurisdikzio aplikagarriak.

Kontratuari eta hartatik eratorritako harremanei Espainiako legeria aplikatuko zaie.. Aldeak, foru propioari uko eginez, Titularraren egoitzako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira. Eperako gordailuan bezero Titular bat baino gehiago badaude, horietako edozeinen egoitzako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, Erakundeak aukeratuta.

Hizkuntza-erregimena.

Informazioa eta kontratuaren baldintzak gaztelaniaz emango dira. Zure onarpenarekin, kontratuak irauten duen bitartean gaztelaniaz komunikatuko gara zurekin.

Erreklamatzeko bitartekoei buruzko informazioa.

Eskatzaileek eskura dute Bezeroentzako Arreta Zerbitzua, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko:

Bezeroaren arreta zerbitzua. WiZink Bank, SAU
Calle Ulises 16-18
28043 (Madrid)
Helbide elektronikoa: reclamaciones@wizink.es

Ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzko kexak eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea hamabost (15) egun baliodunekoa da. Erreklamazioa ez bada ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzkoa, epea hilabetekoa (1) izango da erreklamatzailerak Europar Batasunean bizi den kontsumitzailea bada, eta bi (2) hilabetekoa Europar Batasunean bizi ez den kontsumitzailea bada edo kontsumitzailea ez bada. Epea igaro eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuak ebazpenik eman ez badu, edo erabakiarekin ados ez bazaude, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezu (calle Alcalá, 42-28014 Madrid).

Eperako gordailuaren fiskalitatea.

Espanian bizi direnentzat (Iurralde erkidea), sortutako interesak aurrezkiaren zerga-oinarrian sartzen dira, eta bost zati hauen arabera ordaintzen da:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	%19
6.000,01etik 50.000,00ra arte	%21
50.000,01etik 200.000,00ra arte	%23
200.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%30

Euskadin bizi direnentzat (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia):

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
7.500,00ra arte	%19
7.500,01etik 15.000,00ra arte	%20
15.000,01etik 30.000,00ra arte	%22
30.000,01etik 50.000,00ra arte	%24
50.000,01etik 90.000,00ra arte	%25,5
90.000,01etik 120.000,00ra arte	%26
120.000,01etik 240.000,00ra arte	%26,5
240.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%28

Nafarroan bizi direnentzat:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	%20
6.000,01etik 10.000,00ra arte	%22
10.000,01etik 15.000,00ra arte	%24
15.000,01etik 200.000,00ra arte	%26
200.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%28

Ordaindutako interesei PFEZren %19ko atxikipena aplikatu zaie lurralde erkidean, Euskadin eta Nafarroan.

Urrutitik kontratatze-prozesua.

Kontratu honetako produktuen kontratazio-prozesua urrunetik egingo da. Kontratazio modu honen berezitasunak eta eragiketekin lotutako identifikazio-sistemen mugak direla eta, prozesua nahitaez egin beharko dute produktuaren Titularrak edo titularkideek, erregimen solidarioan.

Hori dela eta, ez da onartuko baimendun, ahaldun edo legezko ordezkariarik sartzea. Prozesuan zehar bezeroari adieraziko zaizkio, modu argi eta zehatzean, kontratua sinatzeko jarraitu beharreko izapide guztiak.

Zehazki, hau egin beharko du:

1. Aurretiazko informazioa ezagutu eta beharrezko aurrerapenarekin adieraztea, eta haren esku jartzen diren kontratuaren termino eta baldintzak ezagutu eta onartzea.
2. Eskatzen zaizun informazioa osatzea.
3. Hitzartutako baldintzak onartu beharko ditu kontratua sinatuz.

Emandako informazioaren baliozkotasun-epea.

Erakundeak edozein unetan aldatu ahal izango ditu aurretiazko informazio honetan jasotako baldintzak, eta baldintza horiek, bereziki ekonomikoak, ez dira bezeroari zuzendutako eskaintza lotesle bat, legearen arabera nahitaezkoak diren kasuetan izan ezik. Beraz, aurretiazko informazioan eta Kontratuan jasotako baldintzak ez badatoz bat, azken horiek gailenduko dira beti.

Kontratu aurreko informazioa WiZink aurrezki kontua.

Oharra: dokumentu honetan nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da.

Berme-funtsa.

WiZink Bank SAU erakundea urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsean atxikita dago. Diru-gordailuetarako, kreditu-erakunde bakoitzean berमतutako gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugileko.

ARRISKU-ADIERAZLEA

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du: 1 / 6 arrisku txikiena da, eta, 6 / 6, arrisku handiena.

Informazio hau WiZink Bank, SAU-k [aurrerantzean, «Erakundea»] ematen du helburu komertzialetarako, kontsumitzaileei zuzendutako finantza-zerbitzuen urrutiko merkaturatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legeari eta banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguren ematearen erantzukizunari buruzko ekainaren 27ko Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrari jarraikiz eta hartzailearentzat bereziki garrantzitsua den informazio zehatza du.

Bezeroak, kontratu-harremanaren edozein unetan, eskubidea izango du produktu honen kontratuaren eta kontratu aurreko informazioaren kopia bat eskatzeko.

Produktua.

Ageriko kontua pertsona fisikoentzat, egoiliarrentzat eta adinekoentzat. www.wizink.es webgunean kontratatu daiteke. Dokumentu hau zure informazio-eskaerari erantzunez bidali da, eta ez du WiZink Bank, SAU zure izenean kontu bat irekitzera behartzen. Sartutako informazioak orientazio izaera du eta egungo merkatuaren baldintzetan oinarrituta garatu da.

Erakundea.

WiZink Bank, SAU
Helbidea: C/ Ulises 16-18, 28043 Madrid
Telefono zenbakia: 91 787 47 47
Helbide elektronikoa: contacto@wizink.es
www.wizink.es

Zerbitzuak ematean, Erakundea Espainiako Bankuaren baimenaren eta ikuskapenaren mende egongo da, haren erregistroetan baitago inskribatuta 0229 zenbakiarekin.

Kontuaren funtzionamendua.

- WiZink aurrezki kontuak ez du onartzen:
 - Ordainagiriak helbideratzea
 - Zorpekoak kontuan
 - WiZink aurrezki-kontua produktu edo zerbitzu horien kargu-kontu gisa erabiltzen duten txartelen edo beste ordainketa-bitartekoen helbideratzea.
 - Txartelak edo beste ordainketa tresnak jaulkitzea.
- Kanal anitzeko Kontratuarekin lotuta dago. Bezeroari Internet bidezko Bankuaren, Telefono bidezko Bankuaren eta Mugikor bidezko Bankuaren zerbitzuen bidez, une bakoitzean eskuragarri dauden kontsulta eta eragiketa guztiak egiteko aukera ematen dio lotutako kontratuei dagokienez, eta, hala badagokio baita WiZink Bank, SAU-rekin kontratu berriak sinatzeko aukera ere.

- Titularrak bere WiZink aurrezki-kontuko saldoa erabili ahal izango du beste banku-erakunde batzuetara egindako SEPA transferentzien (ohikoak edo berehalakoak), edo Bankuko beste aurrezki-kontu batera egindako barne-intsuldaketen bidez. Horretarako, Bankuak autentifikazio indartuko elementu jakin batzuk sartzeko eskatu ahal izango dio, hala nola bere PIN kodea edo SMS mezu bidez bidalitako kode espezifikoak. Transferentzia-agindua Bankuak jaso ondoren prozesatuko dira. Bankuak agindua egun baliogabe batean jasotzen badu, hurrengo egun baliodunean jaso duela ulertuko da. Halaber, agindua Bankuak egun baliodun bakoitzerako ezarritako muga-ordua baino beranduago jasotzen bada, hurrengo egun baliodunean jaso dela ulertuko da. Agindua jaso eta hurrengo 24 orduetan gauzatuko dira transferentzia arrunta bada, eta gehienez ere hamar segundoan transferentzia berehalakoa bada.

Titularrak erabaki dezake zein den berehalako transferentziarekin bidal dezakeen gehieneko diru-muga. Finkatzeko edo aldatzeko, Titularrak ohiko kanaletatik jakinarazi beharko dio bankuari. Muga pertsonal hori beti izango da bankuak ezarritako muga orokorrak baino txikiagoa. Muga orokorrak hauek dira:

– Bankuko kanalen (telefonoa, webgunea eta Appa) edo PSD2 zerbitzuen bidez (agregatzaileak edo baimendutako hirugarrenak) egindako berehalako transferentziak:

- Erakundeak ezarritako eguneko muga: 3.000 €.
 - Eragiketa bakoitzeko muga: 1.000 €.
- Bankuak bezeroari itzuliko dio, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, gauzatu gabeko edo modu akastunean gauzaturako ordainketa-eragiketen zenbatekoa, eta, hala badagokio, kontuaren saldoa, eragiketa akastuna gertatu izan ez balitz egongo litzatekeen egoerara berrezarriko du.
 - Bankuak baimenik gabeko edo gaizki egindako eragiketak zuzenduko ditu, baldin eta bezeroak arrazoizko atzerapenik gabe jakinarazi badizkio Bankuari, eta, betiere, hamahiru (13) hilabeteko epean, eragiketaren zordunketa datatik. Bankuak berehala itzuliko dio bezeroari baimenik gabeko eragiketaren zenbatekoa, Bankuak eragiketaren berri izan zuen egunaren hurrengo lanegunaren amaiera baino lehen (iruzurrezko kasuetan izan ezik).
 - Bankuak bezeroari jakinaraziko dio, une bakoitzean Kontratuan ezarritako kanalen bidez, iruzur-susmoak, benetako iruzurrak edo kontuaren segurtasunerako mehatxuak egoteko arrazoi justifikatuak hautematen baditu. Kasu horietan, Bankuak kontua blokeatu ahal izango du eta bezeroari jakinaraziko dio. Blokeo hori indarrean egongo da eragin zuten arrazoiek dirauten bitartean.
 - Onuradunak hasitako eragiketen kasuan, bezeroak eskubidea izango du, zordunketaren dataren ondorengoa ez den balio-egunarekin, Bankuak egindako eragiketa horiei dagokien zenbateko osoa itzuli diezaion, baldin eta
 1. Bezeroaren baimenak, eman zen unean, ez badu zehazten ordainketa-eragiketaren zenbateko zehatza.
 2. Zenbateko horrek bezeroak zentzuz espero zitekeena baino handiagoa bada, kontuan hartuta aurreko gastuen ohiturak eta kasuaren inguruabarrak. Bezeroak itzultze hori eskatzeko eskubidea izango du zortzi asteko epean, kontuko zorduntze-datatik zenbatzen hasita.

- Kontuak titular gehigarriak onartzen ditu. Titular bat baino gehiago badaude, xedapena eta erantzukizuna solidarioak izango dira. Gordailuan zein aurrezki-kontuan, kontratatu zirenetik hurrengo hamabost (15) egunetan soilik gehitu ahal izango dira titularakideak. Ezinbesteko baldintza izango da horretarako bi kontratuetako titulartasuna guztiz bat etortzea.
- Bezeroak bere eragiketei buruzko informazioa kontsultatu ahal du WiZink online zerbitzuan. Bankuaren eta bezeroaren arteko komunikazioak Bankuaren webgune pribatuaren bidez, posta elektronikoaren bidez edo telefonoaren bidez egingo dira, une bakoitzean aplikagarri den araudian aurreikusitako maiztasunarekin eta forman. Beraz, Bankuak bezeroaren eskura jarriko du, hileroko, bere aurrezki-kontuaren mugimendu guztien laburpena, WiZink Online bidez, eta bezeroari jakinaraziko dio, posta elektronikoz edo edozein bitarteko telematikoz, informazio horren erabilgarritasuna. Halaber, alde aurretik eta banan-banan jakinaraziko dio bezeroari aurrezki-kontuaren kontratuaren aldaketa oro, aldaketa horiek indarrean jarri baino lehen, legeak ezarritako aurrerapenarekin. Bankuak proposatutako aldaketa oro proposatutako aplikazio-data baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinaraziko zaio Titularrari.

Kontratuaren iraupena.

Mugagabea. Bankuak Kontratuaren baldintzak suntsiarazi edo aldatu ahal du, proposatutako aldaketa indarrean sartzen den edo suntsiarazpena eraginkorra den eguna baino bi hilabete lehenago jakinarazita.

Bezeroa ez badago ados jakinarazitako baldintza berriekin, kontratua suntsiarazi ahal du horiek indarrean sartu aurretik, inolako kosturik gabe.

Bezeroak aldaketak onartu dituela ulertuko da, baldin eta aldaketak indarrean sartu aurretik ez badio Bankuari jakinarazten onartu ez dituela.

Kontuaren ordainsaria.

- Urteko interes nominala %0,00 (0,01 eurotik aurrera).
- UTB: %0,00 Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroaren kontuak 15.000 €-ko batez besteko saldoa du 12 hilabeteko epean zehar, eta interesak hileroko likidatzen dira. hileroko interesen likidazioarekin. Epearen amaieran bezeroak 0,00 euroko (interes gordinak) edo 0,00 euroko (interes garbiak) ordainsaria jasoko du. Kalkulua honela egin da: 12 hilabete 365 egun direla kontuan hartuta, eta interes-tasa %0,00 ITN; %0,00 UTB.
- Likidazio-aldizkakotasuna hilerokoa da.
- Kontuaren likidazioa egiteko, batez besteko saldo hartzekoduna zehaztuko da. Horretarako, balio-dataren irizpidea erabiliko da, likidatu beharreko epean mantendutako saldo hartzekodun guztiak kontuan hartuta.

Komisioak.

Zerbitzua	Komisioa
Kontua mantentzea	0 €
Transferentzia	0 € Soilik eurotan egindako transferentziak onartuko dira, bai igorritakoen eta bai jasotakoen kasuan, SEPA (Eurotan Ordaintzeko Gune Bakarra) esparru geografikoaren eta aplikazio-esparruaren barruan (hau da, EBko estatu kidea eta une bakoitzean sistema horretara atxikitako herrialdeak). Jasotako lehen transferentziaren kasuan, Monako eta San Marino salbuetsiko dira.
Laburpenaren kopia	Formatu elektronikoa, 0 € Paperezko formatuan, 3 € dokumentu bakoitzeko

Banku-kontuen lekualdaketa.

Bezeroak bere aurrezki-kontua lekualda dezake, Oinarrizko ordainketa-kontuei, ordainketa-kontuen lekualdatzeari eta komisioen konparagarritasunari buruzko azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian (otsailaren 28ko ECE/228/2019 Agindua) xedatutako prozedurari jarraikiz.

Informazio gehigarria finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzen diren kasuetarako.

Emandako informazioaren baliozkotasun-epea.

Erakundeak edozein unetan aldatu ahal izango ditu aurretiazko informazio honetan jasotako baldintzak, eta baldintza horiek, bereziki ekonomikoak, ez dira bezeroari zuzendutako eskaintza lotesle bat, legearen arabera nahitaezkoak diren kasuetan izan ezik. Beraz, aurretiazko informazioan eta Kontratuan jasotako baldintzak ez badatoz bat, Azken horiek gailenduko dira beti.

Aurrezki kontuaren fiskalitatea.

Espanian bizi direnentzat (lurralde erkidea), sortutako interesak aurrezkiaren zerga-oinarrian sartzen dira, eta bost zati hauen arabera ordaintzen da:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	%19
6.000,01etik 50.000,00ra arte	%21
50.000,01etik 200.000,00ra arte	%23
200.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%30

Euskadin bizi direnentzat (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia):

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
7.500,00ra arte	%19
7.500,01etik 15.000,00ra arte	%20
15.000,01etik 30.000,00ra arte	%22
30.000,01etik 50.000,00ra arte	%24
50.000,01etik 90.000,00ra arte	%25,5
90.000,01etik 120.000,00ra arte	%26
120.000,01etik 240.000,00ra arte	%26,5
240.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%28

Nafarroan bizi direnentzat:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	%20
6.000,01etik 10.000,00ra arte	%22
10.000,01etik 15.000,00ra arte	%24
15.000,01etik 200.000,00ra arte	%26
200.000,01etik 300.000,00ra arte	%27
300.000,01etik aurrera	%28

Ordaindutako interesei PFEZren %19ko atxikipena aplikatu zaie lurralde erkidean, Euskadin eta Nafarroan.

Urrutitik kontratazko-prozesua.

Kontratu honetako produktuen kontratazio-prozesua urrunetik egingo da. Kontratazio modu honen berezitasunak eta eragiketekin lotutako identifikazio-sistemen mugak direla eta, prozesua nahitaez egin behar du produktuaren Titularrak edo Titularkideek, erregimen solidarioan. Hori dela eta, ez da onartuko baimendun, ahaldun edo legezko ordezkariarik sartzea. Prozesu horretan zehar kontratua formalizatzen jarraitu beharreko tramite guztiak argi eta zehatz adieraziko zaizkio bezeroari.

Zehazki, hau egin beharko du:

1. Aurretiazko informazioa ezagutzen duela eta behar besteko aurrerapenez jaso duela adierazi beharko du, eta bere eskura jartzen diren kontratuaren terminoak eta baldintzak ezagutu eta onartu beharko ditu.
2. Eskatzen zaion informazioa bete beharko du.
3. Hitzartutako baldintzak onartu beharko ditu kontratua sinatuz.

Erakundeak egindako kontratazioari buruzko dokumentazioa gordeko du, eragiketaren egiaztagiri gisa.

Atzera egiteko eskubidea erabiltzea.

Titularrak kontratuetan atzera egin ahalko du horiek sinatu eta hurrengo hamalau (14) eguneko epean. Xede horietarako, sinadura-datatzat jotzen da titularrak edo titularkideek kontratua(k) eta eragiketa(k) sinatu edo formalizatzen ditu(zt)en eguna. Atzera egiteko eskubidea, Erakundeari jakinarazitako helbide elektronikotik atencionalcliente@wizink.es helbidera bidalitako mezu elektronikoz gauzatu ahal izango da. Dokumentua erantsi beharko da, datarekin, eta Titular guztiek sinatuta haien izenak, abizenak, IFZ eta kontratuen edo aurrezki produktuen erreferentzia adieraziz. Transferitu beharreko saldorik egonez gero, xede-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria erantsiko da. Titularrak atzera egin ondoren, Bankuak egoera berrezarriko du kontratua sinatu izan ez balitz bezala. Beraz, Bankuak Titularrari itzuliko dizkio Titularrarengandik jaso ahal izan dituen diru-kopuruak, eta Titularrak atzera egiteko eskubidea baliatzean zehaztutako kontuan ordainduko zaizkio.

Legeria eta jurisdikzio aplikagarriak.

Kontratuari eta hartatik eratorritako harremanei Espainiako legeria aplikatuko zaie. Aldeak, foru propioari uko eginez, Titularraren egoitzako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira. Aurrezki-kontuan bezero Titular bat baino gehiago badaude, horietako edozeinen egoitzako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, Erakundeak aukeratuta.

Hizkuntza-erregimena.

Informazioa eta kontratuaren baldintzak gaztelaniaz emango dira. Zure onarpenarekin, kontratuak irauten duen bitartean gaztelaniaz komunikatuko gara zurekin.

Erreklamazio bideei buruzko informazioa.

Eskatzaileek eskura dute Bezeroentzako Arreta Zerbitzua, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko:

Bezeroaren arreta zerbitzua.

WiZink Bank, SAU

Calle Ulises 16-1828043 (Madrid)

Helbide elektronikoa: reclamaciones@wizink.es

Ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzko kexak eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea hamabost (15) egun baliodunekoa da. Erreklamazioa ez bada ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzkoa, epea hilabetekoa (1) izango da erreklamatazailea Europar Batasunean bizi den kontsumitzailea bada, eta bi (2) hilabetekoa Europar Batasunean bizi ez den kontsumitzailea bada edo kontsumitzailea ez bada. Epea igaro eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuak ebazpenik eman ez badu, edo erabakiarekin ados ez bazaude, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezu (calle Alcalá, 42-28014 Madrid).